

Jarrerak eta balioak

Zikloa: 1.a, 2.a eta 3.a

Caia: Diabetesa izatea ez da...

IRAKASLEA

IKASLEAK

1/2



www.fundaciondiabetes.org

Batzuetan zuzenak ez diren gauzak entzuten ditugu, baina, jende askok esaten dituen ez edo pertsona jakintsuek esaten dituztenez, sinetsi egiten ditugu.

Beste batzuetan ondorio okerretara garamatzaten gauzak ikusten ditugu:

Andrea beltza denez, badakit Afrikan jaiotakoa dela (litekeena da zure hiri berean jaiotakoa izatea, eta aitona kubatarra zuelako beltza izatea. Kuban beltz asko dago, baina Kuba ez dago Afrikan, Amerikan baizik).

Harold atzeritarra denez, bere familia pobrea zelako etorri zen gure herrialdera (litekeena da bere aita oso pertsona garrantzitsua izatea eta, hemengo fabrika bateko zuzendari izendatzean, hona etorri izana).

Luisa oso altua denez, ziur asko guk baino urtebete gehiago izango du eta, oso azkarra ez denez, ikasturtea errepikatuko zuen (pertsona batzuk oso altuak izaten dira).

Hauek ziren Carol ezagutzen duten pertsonen diabetesari buruz pentsatzen zituztenak:

- Diabetesa kutsatu egiten dela.
- Carolek ezin zuela kirolik egin.
- Carol gainerakoak baino ahulagoa zela.
- Carol drogazalea zela (ziztatu egiten zelako).
- Caroli ezbeharren bat gertatuko zitzaioela (itsu geratuko zela edo laster hilko zela)

Jarrerak eta balioak

Zikloa: 1.a, 2.a eta 3.a

Caia: Diabetesa izatea ez da...

IRAKASLEA

IKASLEAK

2/2



www.fundaciondiabetes.org

Uste horiek guztiak gezurra ziren arren, Carol ezagutzen zutenek egiaztat zituzten eta harekiko zuten jarrera uste haietan oinarritzen zen

- Carolek diabetesa kutsatuko ziola uste zuen Juanek, horregatik ez zuen Carolekin jolasten jolas-orduetan.
- Carolek ezin zuela kirolik egin uste zuen Corputz Hezkuntzako irakasleak, hori zela eta, gainerako ikasleei baino gutxiago eskatzen zion klaseetan.
- Carol gainerakoak baino ahulagoa zela uste zuen bere amak, horregatik ematen zion nahi zuen guztia.
- Ziztatu egiten zenez, Carol drogazalea zela uste zuen Luisak, eta horregatik utzi zion bere laguna izateari.
- Rosak, Carolen lagunik minenak, bere lagunari ezbeharren bat gertatuko zitzaiola uste zuen; horregatik, oso triste zegoen.

**ZURI HORRELAKORIK EZ GERTATU IZANA ESPERO DUT.
ZALANTZAREN BAT IZANEZ GERO, GALDE IEZAIOSU
GAIXOTASUNA EZAGUTZEN DUEN EDONORI.**